

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

(2010.go apirilaren 1etik 3ra).

Burlatako Mikel Gurea taldearen lokalean jokatu zen, ostegunetik larunbatera arte, arratsaldean. Parte hartzeko 55 urte edukitzea edo 2010. urtean betetzea beharrezkoa zen. Jokalari bakoitzak 90 minutu zituen partida osatzeko, jokaldiko 30 segundoko gehiketaz. Itzuli bateko Liga sistema erabili zen. Soilik 3 jokalarik parte hartu zuten (iaz baino 2 gutxiago eta orain dela 2 urte baino 7 gutxiago). Azkeneko 2 urteetan Aste Santuan jokatu da, arrakasta handirik gabe parte hartzaileen kopuruari dagokionez.

Torneoko zuzendaria Adrian Leranoz Zabalza izan zen. Epaile Nagusia: Javier Fernandez Hierro.

EMAITZAK.

2010-04-01: **Rafael Ruiz Escobar** – Isidro Diaz Redondo: 1-0.
2010-04-02: Jesus Maria Gonzalez Pabollet – **Rafael Ruiz Escobar**: 0-1.
2010-04-03: **Isidro Diaz Redondo** – Jesus Maria Gonzalez Pabollet: 1-0.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Rafael Ruiz Escobar (1.916 FIDE elokoa) – 2 puntu.**
- 2) Isidro Diaz Redondo (1.682) – Puntu bat.
- 3) Jesus Maria Gonzalez Pabollet (1.933) – 0 puntu.

BETERANOEN ERREGEA NAGUSI BERRIZ ERE.

Txapelketa **Ruiz Escobar** eta Gonzalez Pabolleten arteko lehia moduan aurreikusten zen. Azkeneko 6 urteetan titulua 5 aldiz irabazita zuen Ruiz Escobarrek. Bestea Gonzalez Pabolletentzat izan zen.

Bigarren partidari aurrez aurre izan ziren. Pieza beltzekin, **Rafael Ruiz Escobar** nagusitu eta 7 urtetan seigarren titulua lortu zuen, lehia bat falta zen arren.

Azkeneko partidari, ustekabea: Isidro Diazek garaipena eskuratu eta txapeldunorde geratu zen.

Iaz Jesus Maria Gonzalez Pabollet hirugarren izan zen eta Isidro Diaz laugarren.

TXAPELKETAKO PALMARESA.

2003-04 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2004-05 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2005-06 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2006-07 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2007-08 denboraldian: **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, garaile.
2008-09 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2009-10e denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2010-04-03.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.